

# Noaia !!



Datorren astean hasiko dira Santio jaiak Zubietan



Alex Tello

“Telebistan agertzea erraza da,  
baina telebistan aktore lana egitea zailagoa da”





## SANTIXABELAK, ARGAZKITAN.



Jaietako irudi ugari topatuko dituzue [www.noaua.com](http://www.noaua.com) webgunean.

Argazkitegia atalean "Santixabelak 2007" ikarpetan klik eginez.

Zuk ateratako argazkiak ere [noaua.com](http://noaua.com) webgunean ikusi nahi badituzu, bidali itzazu irudiak, koloretan eta JPG formatoan, honako helbidera: [erredakzioa@noaua.com](mailto:erredakzioa@noaua.com).



## BARAZAR OSTATU-JATETXEA

Lagelak bere barurakill  
Alfayak agintan

Bazkariek igarid eza jarraitzen

Santlo jei zoriontsuak opa dizkizuegu!

943 36 33 58 ARBITZA BIDEA - ZUBIETA

## USURBIL S.L. SENDATEGIA



Sanesteban auzoa, 48

Tel: 943 36 11 24 - Faxa: 943 36 28 98

Medikua: e-mail: [sanasur@facilnet.es](mailto:sanasur@facilnet.es)

Administrazioa: e-mail: [sanadire@facilnet.es](mailto:sanadire@facilnet.es)

Ondo igaro festak!

## Albistea iruditan !!

# Aje kontuak

**A**rgazkiak bidaltzeko eskaera egin genuen lehengo aste-ko NOAUA!n. Gureak ez ezik, herritarren irudiak ere biltzeko ohitura dugu. Dagoeneko, argazki batzuk iritsi zaizkigu, eta jada ikusgai dituzue noaua.com webgunean, "Argazkitegia" izeneko atalean. Aldameneko irudia ere jaietakoa da eta Argazkitegian topatuko duzue. Uztailearen 6koa da argazki hau, goizeko 9:00ak aldera egina. Erabat lo dago mutila. Zubiaurrenea kaletik pasatzen ziren autoek bozina jo eta jo eta, hala ere, ezin esnatu. Ajeak horrelako gauzak ditu. Honez gero pasako al zitzaion?



## Noaua !!

NOAUA! Kultur Elkarteak Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil  
 943 36 03 21 - elkarte@noaua.com - www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkarte@noaua.com

Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkarte@noaua.com

Publizitatea: Intza Salsamendi, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbietta, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai.  
 Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

**IKA MIKA** ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!k IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. IDATZIA ARGITARATZE-DATA BAINA ASTEBETE LEHENAGO EKARRI BEHAR DA.

NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean eta, orohar, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

## Aurkibidea

UDALBATZA PLENOKO ERABAKIAK \_\_\_\_\_ **5. OR.**

KRONISTAK KALEJIRAN \_\_\_\_\_ **6. OR.**

AMAITU DA ZIORTZAKO KANPALDIA \_\_\_\_\_ **8. OR.**

ABUZTUAN, ATXEGALDEN FESTAK \_\_\_\_\_ **17. OR.**

ALEX TELLOREKIN SOLASEAN \_\_\_\_\_ **18. OR.**

TOURRERA ZUBELDIA TALDEAREKIN \_\_\_\_\_ **20. OR.**

GAZI, GOZO, GEZA \_\_\_\_\_ **22. OR.**




Usurbilgo Udaia



Euskal presoak



Euskal Herrira!



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA  
 Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza





LUIS ARANALDE

## Senegal, mon amour

Aste bete pasa nuen duela egun batzuk Senegalen. Afrika ez zitzaidan guztiz arrotz egiten, Marokon ibilia bainintzen duela urte pare bat. Baina, beltzen kultura ezagutu nahi nuen eta horregatik Senegalera jo nuen aurten. Frantsesez hitz egiten dutenez, bertakoekin kontaktatzea erraza egin zitzaidan. Etniak eta erreserbak edo animalia gune babestuak zirkuitua egin nuen.

Berrehun mila kilometro koadro ditu, klima tropikala; arroza, artoa, kotoia, gatza, fruta, haragia eta kakahueteak dira bere produkzio nagusia; arrantzan ere jarduten dira.

Nolabait laburbiltzeko Senegalek niregan sortu dituen sentipenak edo bizipenak, lau hitz erabiliko nituzke:

**Behar gorria:** ikusi egin behar da hango pobrezia eta batez ere usaindu; urtaro lehorra tokatu zitzaidan gainera. Hondamenaren paisaia ikusten nuen nonahi. Zabortegei erraldi bat besterik ez Senegal. Laguntza internazional ugari jasotzen dute, baina, agintarien kontu korronteak sendotzeko bakarrik erabiltzen da nonbait diru hori; hango politiko-ustelkeriak ez du izenik, gidariak zionez.

**Emakumea:** ez dakit nor esan zuen emakumea izango dela Afrika salbatuko duena, eta ez zuen arrazoi faltarik. Ikusi egin behar zen nola jantzita agertzen ziren emakumeak: zahar eta gazte, printzesak bailiran. Loto lorea istingan sortzen den bezala, hala ikusten nituen nonahitik irteten. Gidariak esan zigun ehuneko bostak gehienez edukiko zuela garbigailua. Eta zein txukun jantzita bidaltzen zituzten eskolara beren haurrak! Hori da duintasuna!

Bitartean, milaka eta milaka gizonezko ikusi nituen taberna-txo inguruetan itzalean, golperik jo gabe. Gure *landroberria* gidatzen zuenak esan zidan bere aitak lau emazte izan zituela, eta galdetu nionean ze lan egiten zuen, "Korana erakutsi bere haurrei eta emazteei", erantzun zidan. Lana, bere emazteek,

jakina. Senegalgo pertsonaia ospetsu batek dio: "Gu garena eta guk daukaguna, aitari halako bi zor diogu amari. Ereile distraitu bat besterik ez da aita, ama, aldiz, bizi berria sortzeko Jainkoak aukeratu duen lantegia; horregatik, jainkosa bati adinako begirunea diogu amari Afrikan".

**Teranga:** hau da, abegikortasuna. "Terangaren lurraldea" deitzen diote Senegali. Ibili ginen herrixka eta etxeetan beti jarrera bera: harrera gozoa, beroa, irribarretsua... Etxe guztietan eskaintzen ziguten te pixka bat edo beste edariren bat. Miserian, baina, beti zerbait elkarbanatzeko prest.

**Gorée:** esklaboaren isla izan zen Gorée. Bertako museoaren arduradunak kontatu zizkigunak entzun ondoren, lotsaz gizartetik baja emateko gogoia sortu zitzaidan. Hogei bat milioi esklabo bidali zituzten irla txiki horretatik Amerikarantz. Senegal, Mali, Mauritania, Burkina Fasso... Lurralde horietan harrapatzen zituzten esklabo egokienak gero animalia gisa azokan saltzeko. Hamazazpigarren mendean hasi eta hemeretzigarrenaren lehen partean bukatu zen trafiko beldurgarri eta nazkagarri hori. Lauzprobost milioi hil omen ziren bidean, gosez, tratu txarrez, epidemiaz... Esklaboaren prezioa finkatzeko orduan, irizpide hauek erabiltzen zituzten: emakumezkoa baldin bazen, bularrak eta birjintasuna; gizonezkoarekin, aldiz, pisua eta muskulatura; 60 kilo pisatu behar zituen gutxienez; hazta horretara iristen ez bazen, gizendu egiten zuten, Frantzian ahateekin eta antzarrekin egiten duten bezala. Beltz-tratulari hauek kristauak ziren ia denak, jakina, eta garai hartako botere politiko eta erlijiosoaren bedeinkapenarekin egiten zituzten beren makurkeria guztiak. Dakar-en ondoan dagoen irla txiki hau da, agian, krudelkeriaren sinbolo nagusia. Pobreak, desberdinak eta beste arraza batekoak zirelako tratatu zituzten mesprezu horrekin.

Ainhoa Azpiroz - Aitor Landaluze - Luis Aranalde - Aritz Gorriti - Imanol Ubeda - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregarai - Joxe Piñas - Unai Agirre

**LATAILLADE**  **ITURGINTZA**

**GASA BEROKUNTZA**  
**MANTENIMENDUA ETA**  
**KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK**

Ariztitxo 8, behea · 943 365 348 · 609 888 021

Kale nagusia, 10  
Telf: 943 37 33 48  
943 37 09 13

Olundegia - Gozotegia

**LABE-GOXO**

**milorri**  
Lorezaintza ekologikoa

 660 745 774  
699 152 282

**txirriStra**

KONTSEJUZARRA 13  
943 360 466

pintxoak  
ogitartekoak  
plater konbinatuak

**TABERNA**

**Patri Jatetxea**



K/nagusia 14. ☎ 943 362 725

**MIKEL**  
**IZAGIRRE**  
ELEKTRIZITATEA

943 365 095  
609 068 111

GOIZ ARGI ETXEA, 37. KALEZAR

# Udalbatza plenoak arratsaldean egingo dira

## Eguneko Zentroaren prezioak ez igotzea erabaki zen aurreko asteko plenoan

**L**egegintzaldi berria abiarazteko lehen erabakiak onartu berri ditu udalbatzak, pasa den uztailaren 12an izan zen ezohiko saioan. Dagoeneko, plenoen maiztasuna zehaztu da, batzordeak osatu dira, baita liberazioak eta alderdi politikoek eta zinegotziek jasoko duten diru-kopurua onartu ere.

Herritarren parte hartzea bultzatu eta errazteko ohiko bilkurak hilabete bakoitzeko azken astearte arratsaldetan. Ezohikoak, beharrezkoak diren egunetan. Hala erabaki zen aho batez pasa den uztailaren 12an izan zen ezohiko pleno saioan. Hala ere, ez da erabaki aldaezina. Egoerak hala eskatuta, egokitzen joan baitaiteke.

Gauza bera aipatzen zen batzorde informatzaileen bilkuretan ere. Hilean behin bilduko dira eta sei kidez osatuko dira; EA, EAJ, Aralar eta PSE-EEren ordezkari banarekin eta EAE-ANVko bi ordezkariarekin.

### Zortzi batzorde osatu dira

Zortzi batzorde osatu dira guztira; Ogasuna eta Kontuen Batzorde Berezia; Pertsonala; Nekazaritza eta Ingurunea; Hirigintza eta Zerbitzuak; Kultura eta Euskara; Hezkuntza; Gazteria eta Kirola; Ongizatea, Emakumea eta Gizarte Politika.

Alde bozkatu zuten alderdi guztiek, EAK izan ezik. Haiek aurka, besteak beste, Giza Eskubideen batzordea aipatzen ez delako. Batzorde bakoitzeko lehendakari izateko proposamenak aurkeztu ziren baina onarpenak beste bate-

rako mahai gainean geratu dira. EAtik Luismari Ormaetxeak gogorarazi zenez, batzordeak osatu ostean, bertako kideak dira lehendakaria nor izan erabaki behar dutenak. Gero, alkateak onartu behar zuela adierazi zuen.

### Bi liberazio

Alkatea Xabier Mikel Errekondo eta Lehen alkateorde Juanjo Olaizola izango dira dedikazio osoz udalean lan egingo dutenak. Hurrenez hurren, eta udalean onarturiko ordain-erregimenean arabera, Errekondok 23. mailari dagokion ordain saria jasoko du; Olaizolak 8. mailari dagokiona.

Horrekin batera, alderdi bakoitzak urtean 3.000 euro jasoko ditu; denbora tarte berean, zinegotzi bakoitzak 1.200 euro eta batzorde saio bakoitzeko zinegotziek 25 eurona jasoko dituzte, iazko legegintzaldiarekin aldearuta erdia.

Gehiengoz onartu ziren diru-partida horiek, baina aipatutako erabaki sorta bozketa ezberdinetan gauzatu zenez, kasuan kasuko, abstenitu edota aurka bozkatu zuten EAJ eta EAKo zinegotziek.

Ormaetxearen hitzetan, ez da logikoa arduraren gehien duenak maila baxuagoan kobratzea. Populistatza jo zuen erabakia. Errekondok hauteskunde kanpainan emandako hitzari erantzun fisikoa ematen ari zaiola adierazi zion. Zinegotziek kobratu beharreko dietei dagokienez, udal irizpideak jarraituko zituztela iragarri zuten, EAJtik Iñaki Illarramendik onena EUDELen hitzarmenari heltzea zela esan zionean.



HAUTESKUNDEEN ONDORENGO LEHEN PLENOA IZAN ZEN UZTAILAREN 12AN EGIN ZENA.

Edozein kasutan, EAE-ANVtik etorkizunean egin daitezkeen aldaketari irekita daudela adierazi zuten.

### Anttoni Bengoetxeak zinegotzi postua utzi du

Ezohiko lehen saioan, EAE-ANVko zinegotzi Anttoni Bengoetxeak zinegotzi postua utziko zuela adierazi zen. Bere lekua, zerrendako hurrengoak, Karmele Bengoetxeak hartuko du.

### Eguneko Zentroaren prezioak ez dira igoko

**U**dalbatza osoak aho batez Eguneko Zentroko prezioak bere horretan uztea erabaki zuen. Beraz, Gestion de Servicios Residenciales S.Coop enpresatik egindako prezioen igoera eskaerari ezezkoa eman zaio. Inolako aldaketa bideratzeko funtsezko argumetazioarik ez zuten ikusten.

ARITZ GORRITI \_\_\_\_\_

**ERRAZKIN**  
Igeltseritza S.L.

Tel.: 649 435 470  
Faxa: 943 372 679

K./ Nagusia 47. Behea A.  
20170 USURBIL

**ALIPROX**

Kale Nagusia 10  
☎ 943 361 182  
USURBIL

**J.ORBEGOZO**

ITURGINTZA · GASA · BEROKUNTZA

BIZKARRA 1, 1.EBK 943372937 · 659602789

TXOKOALDE

ALOÑA LOIDI

## Badator, badator!



Zuetako asko jakinaren gainean egongo zarete baina oraindik izango da gure ezkontzaren berri ez dakienik ere. Eguna jarri genuenean denbora asko falta zen baina uste baino lehen iritsi da, izan ere datorren uztailearen 28an, larunbata, San Esteban Ermitan

ospatuko dugu Imanolek eta nik gure ezkontza elizkizuna. Urte batzuk badaramatzagu elkarrekin eta iritsi da gure harremana formalizatzeko garaia.

Harrigarria da ezkontzekoak garela esandakoan jendeak duen erantzuna; gehiengoak, "konturatzen al zarete benetan zer egitera zoazten?, zuek ez zaudete burutik sano" esan digu; beste batzuk "gaur egun ezkontza erlijiosoak ez daude modan" esan digute; beste batzuk "hainbeste urteren buruan kostatu zaizue pauso hori ematea" esan digute; eta gutxi batzuk oso ongi iruditzen zaiela diote. Egia esan, guri berdin zaigu jendearen iritzia, garrantzitsuena guk pentsatzen duguna da eta biok oso gustura gaude hartutako erabakiarekin.

Kasu hauetan esan ohi den bezala gure ezkontza dela eta inork eragozpenik balu hitz egin dezala orain edo isil dadila betirako.

KALEBERRI

IRATI PORTU

## Kanpamentua



Urte batzutako geldialdiaren ondoren Ziortza gazte elkarteak berriro ere Peñaloscintosa kanpamentua antolatu du aurten. Lehengo astean, herriko 28 haur Errioxako paraje zoragarri honetan izan ziren, beti ere, pintxe, sukaldari, antolatzaile, begirale, etab.ekin batera.

Aurreneko egunetako gau hotzen ostean, Errioxako eguzkia, nautikoko ur gozo eta mendiaz gozatzeko aukera izan dute bertara joandakoek. Jokuak, barreak, haserre-ak... denetik izan da bertan. Gainera, astea aurrera ziholan bezala usurbildar bat baino gehiago inguratu da bertara eta bere laguntza luzatu: eskerrik asko denei!

Besterik gabe, kanpamentuko abestiarekin agurtzen naiz, eta erdaraz esaten den bezala, hurrengo urtean "más y mejor"!

Kanpamentura gatoz  
Ondo pasatzera  
Autobusa hartu eta  
Errioxa aldera.

Abestiak abestu  
Eta jolastera  
Motxilak hartu eta  
Oinez ibiltzera.

KALEZAR

ALOÑA PULIDO

## Klima aldaketa

Beti bezala buruari bueltaka ari naizela Bizerditan hasi zaiz eta zera pentsatu dut: A zer nolako beroa! Hau ez da posible!

Konturatzen al zarete bat batean fresko egitetik izugarritzko beroa izatera pasatu garela? Honek interneten gaiari buruzko informazioa biltzera eraman nau eta ondorengo datuak bildu ditut:

Pasatako mendean zehar munduko klima asko aldatu da eta azken 50 urteetan jasandako beroaldi hau gizakiaren jardueri dagokie. Lurreko batz besteko tenperatura 0,6º gradu igo da. Guzti honen ondorioa da gaur izan dugun beroa, prezipitazio handiak... Datu hauek ikusirik eta ikerkuntza batzuen ostean zera ondorioztatu dute: negutegi efektuaren gasen ondorioz tenperaturak igotzen jarraituko dute XXI. mendean zehar. Bestalde, elur eta izotz kapa gutxitu egin dira eta honekin batera itsasoaren maila igo da 10zm-tik 20zm-ra.

Mende berrirako lurreko batz besteko tenperatura 1,4 eta 5,8º gradura igotzea espero da, itsasoaren maila 9tik 88 zm-ra igotzea eta fenomeno meteorologiko gogorrak izatea ere espero da.



ATXEGALDE

AINARA BORDAGARAI

## Gora Atxegaldeko festak!

Kaixo herritarrok! Azkenean uda iritsi da, baita parrandan eta herriz herri dantzan eta jai giroan ibiltzeko garaia ere.

Usurbilgo festak, Lasarte, Orío, Zarautz, Añorga, Hernani... gure inguruko txoko guztietako festetan ziur baten bat baino gehiago egon dela egun hauetan. Udari behar bezalako amaiera emateko Atxegaldeko abuztuko azkeneko asteburuan jai giroa izango dela gogoratu beharra dago.

Gure auzoko gazte talde bat buru belarri ari da bertako jaiak aurrera atera nahian; auzoko kamisetak aukeratu, egitaraua antolatu, bai gazte eta helduentzako, txosna non jarri... Hau guztia antolatu eta egunerako prest egoteak izugarritzko lana ematen du. Beraz, gure auzokide gazte hauei eskerrak emateko premian aurkitzen gara, haiei esker gure auzoak aspaldi galdua zuen jai giroa berreskuratuko baitu.

Ea hemendik aurrera urtero ospatzen ditugun auzoko jaiak eta gazte gehiagok parte hartzen duten. Asteburu hori ailegatzean, ziur parranda botatzeko prest aurkituko garela. Amaitzeko, uda ona pasa dezazuela. Eta ia irailean gogotsu lanean hasten garen! Gora Atxegaldeko festak! Bertan ikusi nahi zaituztet!





SANTUENEA

PAKO AGUDO

## Festak antolatzen



**K**aixo. Hauxe izango da opor aurreko azken kronika, honetan ere oporralditxo bat behar izaten da eta. Gainera garai honetan eta urtero bezala, gure auzoko kaleak hutsik azaltzen zaizkigu jendez eta albistez ere. Abuztua iristear dagoen honetan, eromena, denak kanpora! Ze demontre, urte osoa hemen pasatzen dugu pilak agortzen eta beste nonbait kargatu behar.



Auzotar batzuk hala ere lanean jarraitu beharko dute aste hauean, guk oporretatik bueltan jaietaz gozatu ahal izateko. Gogoratu aurten ere udazkenarekin batera "Santuenak" dauden auzoko festak direla. Aurten irailaren 21, 22 eta 23an izango ditugu eta nahiz eta oraindik gauza asko zehazteko dauden, azken urtetako kasta ez dute galduko. Oporretatik bueltan informazio gehiago izango duzue. Lasai, ni momentuz banoa, uda aprobetxatu eta bueltan egongo gara berriz ere. Ondo pasa!

URDAIAGA

ALAZNE BEGIRISTAIN

## Sanestebanak 2007!



**A**zkenean, konturatzeko, gainean ditugu aurtengo auzoko festak ere! Antolaketa lanean hilabeteak pasa ondoren festen atarian gara dagoeneko.

Abuztuaren 2, 3, 4 eta 5ean ospatuko ditugu festak, lau egun primeran, giro onean ederki pasatzeko.

Hemen bertan izango duzue eskuetan jaietako egitaraua baina nik jai batzordearen izenean, bertara gerturatzeko gonbidapena luzatu nahi nizueke. Badakigu gure auzoa txikia dela, ez dagoela poteoan ibiltzeko taberna aukerarik baina, honek ere badu bere xarma. Plazan dagoena ikusi, dantza pixka bat egin, atzeko tabernan beste zerbait hartu,... ez da plan txarra! (Beti ere eguraldiak laguntzen badu).

Gu jai batzordekoak, datorren astetik aurrera han ibiliko gara bazterrak txukundu, azken gauzak lotu,... eta antzeko lanetan. Laguntza emateko prest dagoen edozeinek atek irekiak ditu eta bestela, nola ez, bertan ikusiko gara festetan! Opor onak izan eta Sanestebanak arte!

AGINAGA

ANE MANZISIDOR

## Kontxako bandera

**B**erriz ere hemen nator Aginaga aldeko berri emateko asmoz. Azken aldian ere, aipatu izan dut gai hau, Kontxako bandera. Jakina da, Aginagak estropadetan ere baduela bere historia. Datu aipagarrienen artean, 1957 eta 1960an irabazitako Kontxako banderak ditugu.

Lehen bandera irabazi zela, aurten 50 urte dira, hau dela eta, irailaren 8an, larunbata, jai moduko bat antolatu dugu, garai hartan estropadetan parte hartu zuten arraunlariak omenduz. Omenalditxo hori burutzeko, goizez meza izango dugu. Eguerdian herri bazkaria eta jarraian, omenaldia gauzatuko da. Eguna giro onean amaitzeko, berriz, trikitalariak izango ditugu.

Aipatu behar, egun hau dela eta, kamisetak eta banderak aterako ditugula Aginaga osoa urdinez janzteko. Horiak uztailaren 25etik aurrera salgai izango dira honako leku hauetan: Arrate zahar egoitzan, Sekaia erretegia eta Etxebeste tabernan.

Hemendik, guztioi, zahar nahiz gazte, kamiseta eta bandera hauek erostera gonbidatzen zaituztet. Aginaga eta aginagarron koloreak harro erakutsi ditzagun.



ZUBIETA

DENIS ELORTZA

## Ondo pasau

**B**atzuen opor-bidaiek, besteen asteburu-pasek, hondartzarako txangoek zein mendi-bueltek eta errausketaren aurkako bizikleta martxak herriko plaza hustu dute azkenaldian.

Baina aurki izango dugu berriz plaza lepo betetzeko aitzakiarik, Jai Batzordekoen lanari esker. Batzuk



dantza-entseguetan eta besteak jai-programa sekretuaren inguruko zurrumurruetan, denok jaien esperotan.

Ea bada jaiekin gozatu zoritxarrak ahaztu eta datorrena indarberrituta hartzen dugun. Ondo pasau jaietan! Zuek ere, NOAUA!ko kideok, ondo-ondo pasa oporretan...



## Amaitu da Ziortzako kanpaldia

**Z**iortza Gazte Elkarteak antolatuta Peñaloscintos aldean izan dira herriko haur eta gazte-  
txoak uztailaren 9tik 15a bitartean. Urte batzuetako etenaldiaren ondoren, Errioxako Cameros mendizerrako lurretan kanpaldia egiteko ohitura berreskuratu dute.

Uztailaren 9an irten ziren Usurbildik eta astebeteko egonaldiaren ondoren berriz ere etxean dira Ziortzako kanpaldian izan diren haur, gaztetxo eta gainerantzekoak. Gaur egungo gizartean ohikoak diren telebista, ordenagailu, play station eta dena delakorik gabe, paraje ederretan ondo pasatzeko aukera izan dute Peñaloscintosko kanpaldian izan diren 28 haur eta gaztetxoek.

Maitasunaren eguna, olagarro eguna, karramarro eguna... denetarik izan dute eta astebete bakarrik egon badira ere ekin-tza ugari egiteko aukera izan dute. Pistadak, ur-borroka, herritarrekin egin-dako afariko showa, lagun ezkutua, "nau-tikoko" bainua... modu desberdinetan balore desberdinak landu dituzte Ziortzako kanpaldian. Urteetan zehar egin izan den "ruta" ere egin dute. Bi egunez kanpalditik kanpo ibili ziren bi talde-tan banatuta, haurrak eta gaztetxoak, ibil-bide politak burutuaz, atari zabalean lo eginez eta otorduak beraiek prestatuaz.



JOSU ARANBERRI

9 ETA 14 URTE BITARTEKO 28 GAZTE IZAN DIRA ZIORTZAKO KANPALDIAN.

**Xukin** Andoni Errazkin  
igeltseritza orokorra  
Barne eta kanpoko lanak  
663 08 76 71 • USURBIL

**LAUKOTE**  
OKINDEGIA  
KAFETEGIA  
Puntapax kalea, 16 behea  
(Artzabal). 943 36 09 80

Papera jartzea eta  
Pinturak orokorrean  
**FERNANDO**  
PINTORAK  
943 366 019  
943 363 460  
Kale Nagusia 1 • USURBIL

**MAHUKA**  
ETXEBESTE KALEA, 3 - 943 36 106  
Hemen aurkituko duzu  
gizon eta emakumezkoen  
MODAKO ARROPA

*I n t e r n e t n - z r m u n l k*  
**BEMARAYOK**  
BEMARAYOK MAIOR...  
Telf: 943 36 61 21 Alperroburu, 1



## Atxegaldeko jaiak abuztu amaieran itzuliko dira

**H**amabost urtetik gora suziri hotsik entzun gabe baina badatoz berriz ere festak Atxegaldera. Askok oporrak ezin hobeto amaitu ahal izango dituzte, abuztu amaieran izango baitira auzoko jaiak; abuztuaren 31etik irailaren 2ra.

Haur eta gazteentzako jokoek, bertso afariak, helduentzako dantza emanaldiak edota herriko taldeen kontzertuek tartea izango dute egitarauan. Txozna eta musika emanal-

diak eskainiko diren oholtza garai bateko Atxegaldeko Auzo Elkarteko egoitzaren parean kokatuko dituzte.

Jai Batzordetik gogorarazi dutenez, zahar eta gazte, adin guztiei zuzendutako ekitaldiak prestatu dituzte. Beraz, denei jaietara hurbiltzeko deia luzatzen diete. Festak hasteko oraindik hilabete falta denez, egitarauak aldaketak izan ditzakeela ohartarazten dute.

ARITZ GORRITI \_\_\_\_\_



HERRIKO MUSIKA TALDEAK ARITUKO DIRA ATXEGALDEN. IRUDIAN, EPOK TALDEKOAK.

## Atxegaldeko festak, abuztuaren 31tik irailaren 2ra

**Abuztuak 31, ostirala**  
18.00etan triki-poteoa.  
19.30ean txupinazoa eta txoznen irekiera.

Ondoren, buruhandiak.  
20:30ean "lunch"herrikoia  
Gauean, herriko musika taldeak: In-Situ + Epok + Susmo.

**Irailak 1, larunbata**  
Goiz osoan pintura lehiaketa.  
10:00etan haurrentzako jolasak eta oparien zozketa.  
Ondoren, buruhandiak.  
14:00etan herri bazkaria (nor-

berak ekarritako bazkaria; jai batzordearen kontu edaria, kafea eta postrea).

16:30ean mus txapelketa. Izena ematea, egunean bertan, 15:00etatik 16:00etara.

17:00etan gazte jokoak.  
Ondoren, txokolatada eta buruhandiak.

21:00etan bertso afaria (Beñat eta Unai Gaztelumendi bertsolari gazteen saioa).

Gauean, herriko musika taldeak: Despervicio eta Mendeku Itxua.

Ondoren, DJ Larra.

**Irailak 2, igandea**  
12:00etan soka-dantza.

Ondoren, haragi egosi eta sagardo dastaketa.

16:00etan toka txapelketa  
Jarraian, tortilla patata lehiaketa eta trikitaliak

19:00etan helduentzako dantzaldia Larraren eskutik. Animatu dantzaldira!

22:00etan festen amaiera eta azken traka.

*Antolatzailea: Atxegaldeko Jai Batzordea.*

Industri eta iragarkeri  
**SERIGRAFIA**  
**TANPOGRAFIA**  
KEMISTEM, IMPRIMABETEA  
**OSU**  
943 371 954  
UGALDEA POL.36-2-USBIL

**JUANTXO**  
BURDINDEGIA  
Zubiaurrenea 8  
943 370 008

teilatuak eta fatxadak  
**JOSE AIZPURUA UNANUE**  
Obaba kalea 29 · ASTEASU  
943 69 68 52 · 620 800 186

Alex Tello, "Antzerkia Airean" lehiaketan bigarren saritua

## "Antzerkigintzan hastea kosta egin zitzaidan"

**U**ztailaren 13an jaso zuen "Antzerkia airean", entzutezko antzezlan lehiaketako bigarren saria. Arte Eszenikoen Tailerrean hiru urteko ikasketak amaitu berri ditu. Ikaskideekin batera, antzezlan bat sortu eta batetik bestera ibili da emanaldiz emanaldi. Alex Tello usurbildarra aktore lanean ekindako bide horretan jarraitzeko asmotan dabil.

**NOAUA.** "Antzerkia airean" lehiaketan bigarren saria. Pozik ezta?

**Alex Tello.** Bai, gustura. Sariak beti politik dira. Iaz bezala, lehiaketa honetara aurkeztea aitzakia da. Helburua ez da saria, baina eskertzen da.

### ALEX TELLO

"Erregistro ezberdinak probatu nahi ditut. Lehiaketa honek horretarako aukera eman dit"

**N. Noiz jaso zenuen berria?**

**A. T.** Ekainaren 29an. Lehiaketa apala, xumea da. Aurten, bigarren edizioa izanda, lan gehiago, sei aurkeztu dira. Pixkanaka zabaltzen doa. Iaz lehen saria lortuta, aurten berriz eskuratzeari zaila zen. Gai delikatu eta arriskatu izan da eta bigarren sariarekin kontentu nago.

**N. Zerri buruzkoa da "Ospitalean" istorioa?**

**A. T.** Ospitaleko eszenak dira. Batez ere, ospitaleetako gelatan gertatzen diren bisitak. Asmoa ospitaleko giroa islatzea zen, beti ere begirunez landua.

**N. Istorioak gaixoen ikuspuntutik kontatuak dira?**

**A. T.** Ingresatuta daudenengan zentratua dago. Azkenean, laneko eszena bakoitza animo egoera ezberdin baten isla da. Denak ez dira gertaera dramatikoa. Ez dut bilatzen negar egitea, baina eragin dezake eta transmitzea lortzen badu, aurrera. Iaz, piano zahar baten istorioa zen.

**N. Zer moduzko harrera izan du aurtengo istorioak?**

**A. T.** Nire barruko gauzak askatze-ko egiten dut. Eta hori forma polit bat emanda bada, hobeto. Baina gero, batek hartzailearen erantzun bat espero du eta aurten kostata lortu dut. Eszena batzuek harrera hobea izan duten arren, ni gustura gelditu naiz. Erregistro ezberdinak probatu nahi ditut. "Antzerkia Airean" lehiaketak horretarako aukera ematen dit. Nahiz eta nik idatzi, talde lana da. Datorren urtean gauzak ez badira ateratzen, sortzeari ekingo diot. Gauza hauek bizitasuna ematen didate.

**N. Arte Eszenikoen Tailerrean hiru urte. Bukatu berri dituzu ikasketak?**

**A. T.** Diploma bat eman didate eta horrek badu bere balioa, bertako zein kanpoko antzerki konpainietarako eta telebistarako. Eskola ofizialik ez baita-



ALEX TELLOK ANTZERKIGINTZARI LOTUTAKO SORMENAREN BIDEA JORRATU NAHI LUKE, HEMENDIK AURRERA.

go. Diplomaren bidez, Euskal Aktoreen Batasunean sartuta nago.

### "Sortzea gustuko dut"

**NOAUA.** Sormen lanetarako baliabide aldetik zer moduzko panorama dago?

**Alex Tello.** Zarauzko gaztetxean irrati bat badute, antzokia, ordenagailu gela... Biltzeko leku bat da. Antzerkia egin edo zerbait egin nahi duen edonork bertan leku bat du. Usurbilen faltan botatzen dut denontzat leku bat. Sutegi ondo dago emanaldietarako baina gauzak egin nahi dituztenentzako leku bat falta da.

Herrian antzerkia norbaitek ikasi edo egin nahi badu, ni ere prest. Sortzea gustuko dut.

**KALITATEKOK EUSKAL OKELA**

**BEHEKO KALEA, 4**  
Telf: 943 36 57 42

**ALKORTA AUTOZERBITZUA**

**Frutak Barazkiak Etxeko produktuak Izoztuak**

**Usurbil Autoak, S.C.L.**  
Zerbitzu Ofiziala

Zumartegi Poligonoa,  
Aitezarra kalea, 1.  
20170 USURBIL  
Faxa: 943 36 62 92

943 36 10 79



N. Eskola ofizialaren izaerarik ez du baina gaur egungo aktore asko bertatik pasa dira?

A. T. "Goenkale"ko aktore gazte dezente edota "Pilotari" telesail berriko protagonistak.

N. Zer moduz moldatu zara klase-etan?

A. T. Nik prozesu mantsoa darat. Antzerkigintzan hastea kosta egin zitzaidan. Aurreko bi urteak nahiko gogorak izan dira. Gauza asko ikasi behar; adibidez, ditugun ohitura txar asko zuzentzea. Bestalde, antzerki tailerreko irakasleak punta puntako profesionalak dira.

N. Klase kideok antzezlan bat prestatu eta bira eskaini berri duzue. Zer moduz joan da?

A. T. Oso gustura aritu gara Donostiako Antzoki Zaharrear, Bidebietako Kontadoresen, Bilbon, Azkoitian, Ondarrun... Oso polita izan da, etorri direnak oso gustura geratu baitira. Emanaldi gehiago eskaintzeko gogoz gelditu gara. Baina nire taldeko dezente kanpora doaz, baten batek utziko du... Ni hemen geratuko naiz. Pena da, baina hamar lagun gara eta denok elkartzeara zaila da.

N. Segurtasun hitza da lanaren oinarria?

A. T. Segurtasunaren inguruan hausnarketa bultzatzen dugu. Prestatutako lana ezin dugula eskaini esanez hasten gara. Gure artean eztabaidatu eta segurtasunari buruzko emanaldi bat egitea erabakitzen dugu. Segurtasunari lotutako hainbat esketx dira; seguru saltzailearen istorioa, alarmak jartzen dituen robota, kartze-

lara bisitatzera doan ijito familia metal detektagailutik pasatzen, mundu mailako perspektibatik segurtasunari lotuta egiten diren manipulazioak...

N. Segurtasun hitza modu zabalean ulertuta?

A. T. Lanaren izenburuari begiratu besterik ez; "Izenbururik gabe... segurtasun arrazoiengatik". Baina obra honekin asko gozatu dut, inprobisaziotik abiatutakoa baitzen. Aktore batek gozatzen duenean, orduan egiten du lan polita.

N. Antzerki tailerra amaituta, zuei planteatzen zaizkizuen irteera profesionalak zeintzuk dira?

A. T. Ikasitakoa sakontzeko kanpora ikastera joatea, lana dutenak hemen, antzerki munduko aukerak, lagun artean zerbait sortzea, museo-entzako animazioen bikoizketak, dena uztea edota klaseak emateko aukera. Nik klaseak emateko bide hori hartuko dut. Beste bidea, aktore gehienak ostalaritzatik pasatzea omen da. Beste lanbide batean aritu zerbait atera arte. Eta orduan, disponibilitatea behar da.

N. Antzerkiak zer aportatzen dizu?

A. T. Nire ideiak gauzatu ditzakelako jakiteak aberastasun pertsonal handia ematen dit. Baita telebistan agertzeko aukera: Martin, Klikowsky, Wazemank edota Goenkale telesailetan. Azken honetan aktore lana egin berri dut. Telebistan agertzea erraza da, baina telebistan aktore lana egitea zailagoa. Figurantetik aktore lanera pauso handia dago.

ARITZ GORRITI

## "Iaz film baterako papera eskaini zidaten"

NOAUA. Zineman ere lan egiteko aukera izan zenuen, ezta?

Alex Tello. Iaz film baterako paper bat eskaini zidaten. Duela aste gutxi zinematuan estreinatu zen "Dos rivales casi iguales" filmerako. Lesakan grabatu zen. Eskolara argazkiak ateratzera etorri zitzaizkigun. Nire aurpegiak pertsonaia baten profilarakin bat egiten zuela esan zidaten. Desiatzen nengoen baina eskolako urte amaierako erakustaldia zela eta ezin izan nuen parte hartu.

Aktoreak edozertarako prest egon behar du. Gero, perfila hartzen dute kontuan. Pertsonaia gaiztoaren papera gustura egingo nuke. Gero, aurpegia, antzezteko modua... kontuan hartu behar. Gorputz espresioa eskatzen duten lanetan ez dut erraztasun handiagoa. Iaz, Peter Roberts mimoarekin probak egiten aritu nintzen eta utzi egin nuen. Sufritu egiten da.



TELLOK ESKU-ESKURA IZAN ZUEN DUELA GUTXI ESTREINATUTAKO FILM BATEAN PARTE HARTZEKO AUKERA.

**Kalkos kopisteria**  
FOTOKOPIAK  
zuri-beltza · koloretan

BANDERA  
SALMENTA

PINTORE KALEA 7 · LASARTE-ORIA  
943 376 424 · 943 376 155 (FAX) kalkos@copisteriakalkos.com

**Kima**  
MASAJE LEKUA

Kirol masajea eta masaje terapeutikoa

Kale nagusia, 44- behea  
LASARTE-ORIA

TEL. 36 61 97

### Eguneako goardiako farmaziak

**Uztailak 19, osteguna**  
Rodríguez, Nagusia 42 atz Lasarte

**Uztailak 20, ostirala**  
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

**Uztailak 21, larunbata**  
De Miguel, Nagusia32 Lasarte  
Oa Kontzeju Zaharra 11 Usurbil

**Uztailak 22, igandea**  
Rodríguez, Nagusia 42 atz Lasarte

**Uztailak 23, astelehena**  
Gil, Nagusia 24 Lasarte

**Uztailak 24, asteartea**  
Rodríguez, Nagusia 42 atz Lasarte

**Uztailak 25, asteazkena**  
Gil, Nagusia 24 Lasarte

**Uztailak 26, osteguna**  
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

**Uztailak 27, ostirala**  
Rodríguez, Nagusia 42 atz Lasarte

**Uztailak 28, larunbata**  
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte  
Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil

**Uztailak 29, igandea**  
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

**Uztailak 30, astelehena**  
Gil, Nagusia 24 Lasarte

**Uztailak 31, asteartea**  
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

**Abuztuak 1, asteazkena**  
Rodríguez, Nagusia 42 atz Lasarte

**Abuztuak 2, osteguna**  
Gil, Nagusia 24 Lasarte  
**Abuztuak 3, ostirala**  
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

**Abuztuak 4, larunbata**  
Gil, Nagusia 24 Lasarte  
Oa Kontzeju Zaharra 11 Usurbil

**Abuztuak 5, igandea**  
Gil, Nagusia 24 Lasarte

**Abuztuak 6, astelehena**  
Rodríguez, Nagusia 42 atz Lasarte

**Abuztuak 7, asteartea**  
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

**Abuztuak 8, asteazkena**  
Gil, Nagusia 24 Lasarte

**Abuztuak 9, osteguna**  
Rodríguez, Nagusia 42 atz Lasarte

**Abuztuak 10, ostirala**  
Gil, Nagusia 24 Lasarte

**Abuztuak 11, larunbata**  
Rodríguez, Nagusia 42 atz Lasarte  
Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil

**Abuztuak 12, igandea**  
Rodríguez, Nagusia 42 atz Lasarte

**Abuztuak 13, astelehena**  
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

**Abuztuak 14, asteartea**  
Rodríguez, Nagusia 42 atz Lasarte

**Abuztuak 15, asteazkena**  
Acha-Orbea, Hipodromo 6 Lasarte

**Abuztuak 16, osteguna**  
De Miguel, Nagusia 32 Lasarte

**Abuztuak 17, ostirala**  
Urbistondo, San frantzisko 1, Lasarte

**Abuztuak 18, larunbata**  
De Miguel, Nagusia32 Lasarte  
Oa Kontzeju Zaharra 11 Usurbil

**Abuztuak 19, igandea**  
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

**Abuztuak 20, astelehena**  
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

**Abuztuak 21, asteartea**  
Acha-Orbea, Hipodromo 6 Lasarte

**Abuztuak 22, asteazkena**  
Urbistondo, San frantzisko 1, Lasarte

**Abuztuak 23, osteguna**  
Acha-Orbea, Hipodromo 6 Lasarte

**Abuztuak 24, ostirala**  
De Miguel, Nagusia 32 Lasarte

**Abuztuak 25, larunbata**  
Acha-Orbea, Hipodromo 6 Lasarte  
Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil

**Abuztuak 26, igandea**  
Acha-Orbea, Hipodromo 6 Lasarte

**Abuztuak 27, astelehena**  
Urbistondo, San frantzisko 1, Lasarte

**Abuztuak 28, asteartea**  
Gil, Nagusia 24 Lasarte

**Abuztuak 29, asteazkena**  
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6  
Lasarte

**Abuztuak 30, osteguna**  
Urbistondo, San frantzisko 1, Lasarte

**Abuztuak 31, ostirala**  
Acha-Orbea, Hipodromo 6 Lasarte

**Irailak 1, larunbata**  
Urbistondo, San frantzisko 1, Lasarte  
Oa Kontzeju Zaharra 11 Usurbil

**Irailak 2, igandea**  
Urbistondo, San frantzisko 1, Lasarte

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**  
J. Etxebeeste Farmazia  
Elkano 2 kalea, Hernani  
943 552087 (gauko guardia  
22:00etatik 09:00ak arte)

2007ko egutegia noaua.com webgunean

## Zubeldia Taldearekin

### Tourrera joateko aukera

Plateau de Beilleko etapa ikusteko autobusa antolatu du Zubeldia Taldeak. Etapa hori larunbat honetan, hilak 21, korrituko dute txirrindulariek. Autobusa larunbat goizean aterako da, goizeko 6:00ak aldera frontoi atzetik. Itzulera, aldiz, astelehen goizaldean, 3:00ak edo 4:00ak aldera. Bidaiaaren prezioa 90 eurokoa da. Hori bai, izena emateko epea asteazken honetan amaitzen zen. Txiriboga tabernan dago izena emateko zerrenda.



ORDUTEGIA								ORDUTEGIA							
Tren								Tren							
Donostia AMARA	Donostia LUGARITZ	Donostia ANONGA	Donostia ERREKALDE	USURBIL	Orio AIA	Zarauitz SAN PELAIO	ZARAUITZ	ZARAUITZ	Zarauitz SAN PELAIO	Orio AIA	USURBIL	Donostia ERREKALDE	Donostia ANONGA	Donostia LUGARITZ	Donostia AMARA
05.47	05.50	05.52	05.55	06.03	06.14	06.19	06.20	06.08	06.09	06.15	06.24	06.30	06.33	06.36	06.39
06.17	06.20	06.22	06.25	06.33	06.44	06.49	06.50	06.38	06.39	06.45	06.54	07.00	07.03	07.06	07.09
06.47	06.50	06.52	06.55	07.03	07.14	07.19	07.20	07.08	07.09	07.15	07.24	07.30	07.33	07.36	07.39
07.17	07.20	07.22	07.25	07.33	07.44	07.49	07.50	07.38	07.39	07.45	07.54	08.00	08.03	08.06	08.09
07.47	07.50	07.52	07.55	08.03	08.14	08.19	08.20	08.08	08.09	08.15	08.24	08.30	08.33	08.36	08.39
08.17	08.20	08.22	08.25	08.33	08.44	08.49	08.50	08.38	08.39	08.45	08.54	09.00	09.03	09.06	09.09
08.47	08.50	08.52	08.55	09.03	09.14	09.19	09.20	09.08	09.09	09.15	09.24	09.30	09.33	09.36	09.39
09.17	09.20	09.22	09.25	10.03	10.14	10.19	10.20	10.08	10.09	10.15	10.24	10.30	10.33	10.36	10.39
10.47	10.50	10.52	10.55	11.03	11.14	11.19	11.22	11.08	11.09	11.15	11.24	11.30	11.33	11.36	11.39
11.17	11.50	11.52	11.55	12.03	12.14	12.19	12.20	12.08	12.09	12.15	12.24	12.30	12.33	12.36	12.39
12.17	12.20	12.22	12.25	12.33	12.44	12.49	12.50	12.38	12.39	12.45	12.54	13.00	13.03	13.06	13.09
12.47	12.50	12.52	12.55	13.03	13.14	13.19	13.20	13.08	13.09	13.15	13.24	13.30	13.33	13.36	13.39
13.17	13.20	13.22	13.25	13.33	13.44	13.49	13.50	13.38	13.39	13.45	13.54	14.00	14.03	14.06	14.09
13.47	13.50	13.52	13.55	14.03	14.14	14.19	14.20	14.08	14.09	14.15	14.24	14.30	14.33	14.36	14.39
14.17	14.20	14.22	14.25	14.33	14.44	14.49	14.50	14.38	14.39	14.45	14.54	15.00	15.03	15.06	15.09
14.47	14.50	14.52	14.55	15.03	15.14	15.19	15.20	15.08	15.09	15.15	15.24	15.30	15.33	15.36	15.39
15.17	15.20	15.22	15.25	15.33	15.44	15.49	15.50	15.38	15.39	15.45	15.54	16.00	16.03	16.06	16.09
15.47	15.50	15.52	15.55	16.03	16.14	16.19	16.20	16.08	16.09	16.15	16.24	16.30	16.33	16.36	16.39
16.17	16.20	16.22	16.25	16.33	16.44	16.49	16.50	16.38	16.39	16.45	16.54	17.00	17.03	17.06	17.09
16.47	16.50	16.52	16.55	17.03	17.14	17.19	17.20	17.08	17.09	17.15	17.24	17.30	17.33	17.36	17.39
17.17	17.20	17.22	17.25	17.33	17.44	17.49	17.50	17.38	17.39	17.45	17.54	18.00	18.03	18.06	18.09
17.47	17.50	17.52	17.55	18.03	18.14	18.19	18.20	18.08	18.09	18.15	18.24	18.30	18.33	18.36	18.39
18.17	18.20	18.22	18.25	18.33	18.44	18.49	18.50	18.38	18.39	18.45	18.54	19.00	19.03	19.06	19.09
18.47	18.50	18.52	18.55	19.03	19.14	19.19	19.20	19.08	19.09	19.15	19.24	19.30	19.33	19.36	19.39
19.17	19.20	19.22	19.25	19.33	19.44	19.49	19.50	19.38	19.39	19.45	19.54	20.00	20.03	20.06	20.09
19.47	19.50	19.52	19.55	20.03	20.14	20.19	20.20	20.08	20.09	20.15	20.24	20.30	20.33	20.36	20.39
20.17	20.20	20.22	20.25	20.33	20.44	20.49	20.50	21.08	21.09	21.15	21.24	21.30	21.33	21.36	21.39
20.47	20.50	20.52	20.55	21.03	21.14	21.19	21.20	22.08	22.09	22.15	22.24	22.30	22.33	22.36	22.39
21.17	21.50	21.52	21.55	22.03	22.14	22.19	22.20	22.40	22.41	22.47	22.56	23.00	23.03	23.06	23.09



# Agenda !!

KzGunea abuztuan itxita; iraillean arratsalde zabalik

Uztailan, arratsalde irekiko dira KzGuneako ateak. Bigarren hamabostaldian, honako ordutegian: 14:00etatik 18:00etara.

Abuztuan itxita izango da KzGunea. Iraillean ere, arratsalde izango da mar txan KzGunea, baina honako ordutegian: 16:00-20:00.

Informazio gehiago: 943 36 14 12.

## Irailaren 7an argitaratuko dugu datorren NOAUA!

Oporetara joango gara laster. Datorren astekaria irailaren 7an plazaratuko dugu. Ondo pasa eta laster arte lagunok!

# Musikaren txokoa !!

## “Mejikanak eta rantxerak”, uda alaitzeko bilduma berria

Rantxerak, *Tex-mex* eta orohar mexikar estiloa oso onarpen handikoa izan da Euskal Herrian. Asko izan dira estilo honetan egin diren abestiak eta bertsoiak, bereziki, plaza taldeen artean. 80ko eta 90eko hamarkadetan, bereziki, ohikoak ziren mejikar kutsuko abestiak triki, plaza eta dantzatalde askoren errepertorioetan.



Esan bezala, alaitasuna eta sentikortasuna batzen dituen estilo

honek, tradizioz, zabalpen handia izan du gurean. Honen harira dator Elkarlanean zigiluak plazaratu duen bilduma, “Mejikanak eta Rantxerak” izenekoa.

Guztira 20 kantu dira eta tartean dira “Ai Txabela!” (Joselu Anayak), “Kattalin” (Imuntzo eta Beloki), “Anttoni eta Antton” (Zabaleta eta Imanol) edota “Gora zapata” (Jokaldi) abestiak. Estrainekoz, katalogo honetan ez daude Maixa eta Ixiar eta beste talde batzuk egindako rantxerak. Eta katalogo berdinekoak dira...

**ORDUTEGIA Autobus** Astelehenetik Ostiralera LANEGUNETAN

DONOSTIA	URBIL	USURBIL	ZARAUZ	ZARAUZ	USURBIL	URBIL	DONOSTIA
07:40	>>	08:05	08:25	08:45	07:05	>>	07:30
08:10	>>	08:35		07:15	07:35	>>	08:00
08:40	>>	09:05	09:25	07:45	08:05	>>	08:30
09:10	09:30	09:35		08:15	08:35	>>	09:00
09:40	>>	10:05	10:25	08:45	09:05	>>	09:30
10:10	>>	11:05	11:25		09:40	09:45	10:10
11:40	>>	12:05	12:25	09:45	10:05	>>	10:30
12:10	12:30	12:35		10:40	10:45	>>	11:10
12:40	>>	13:05	13:25	10:45	11:05	>>	11:30
13:10	13:30	13:35		11:45	12:05	>>	12:30
13:40	>>	14:05	14:25	12:45	13:05	>>	13:30
14:10	14:30	14:35		13:40	13:45	>>	14:10
14:40	>>	15:05	15:25	13:45	14:05	>>	14:30
15:10	15:30	15:35		14:40	14:45	>>	15:10
15:40	>>	16:05	16:25	14:45	15:05	>>	15:30
16:10	>>	17:05	17:25		15:40	15:45	16:10
17:40	>>	18:05	18:25	15:45	16:05	>>	16:30
18:10	18:30	18:35		16:40	16:45	>>	17:10
18:40	>>	19:05	19:25	16:45	17:05	>>	17:30
19:10	19:30	19:35		17:45	18:05	>>	18:30
19:40	>>	20:05	20:25	18:45	19:05	>>	19:30
20:15	20:35	20:40	21:00		19:40	19:45	20:10
21:00	21:20	21:25	21:45	19:45	20:05	>>	20:30
22:15	22:35	22:40	23:05	20:45	21:05	>>	21:30
				21:15	21:35	>>	22:00

08:00 Aste jartzen da. 00:00 Asteak dator

**ORDUTEGIA Autobus** Larunbat, Igande eta JAIEGUNETAN

DONOSTIA	URBIL	USURBIL	ZARAUZ	ZARAUZ	USURBIL	URBIL	DONOSTIA	
08:00		08:20	08:25	08:45	06:45	07:05	07:10	07:30
08:00		08:20	08:25	08:45	07:45	08:05	08:15	08:40
10:00		10:20	10:25	10:45	08:45	09:05	09:15	09:40
11:00		11:20	11:25	11:45	09:45	10:05	10:15	10:40
12:00		12:20	12:25	12:45	10:45	11:05	11:15	11:40
13:00		13:20	13:25	13:45	11:45	12:05	12:15	12:40
14:00		14:20	14:25	14:45	12:45	13:05	13:15	13:40
15:00		15:20	15:25	15:45	13:45	14:05	14:15	14:40
16:00		16:20	16:25	16:45	14:45	15:05	15:15	15:40
17:00		17:20	17:25	17:45	15:45	16:05	16:15	16:40
18:00		18:20	18:25	18:45	16:45	17:05	17:15	17:40
19:00		19:20	19:25	19:45	17:45	18:05	18:15	18:40
20:00		20:20	20:25	20:45	18:45	19:05	19:15	19:40
21:00		21:20	21:25	21:45	19:45	20:05	20:15	20:40
22:00		22:20	22:25	22:45	20:45	21:05	21:15	21:30
22:30		22:50	22:55	23:15	21:45	21:05	21:15	21:40
<b>SEGUNDU LARUNBAT GALETAN</b>								
00:00	>>	00:25	00:45	23:15	23:35	>>	00:00	
02:00	>>	02:25	02:45	01:15	01:35	>>	02:00	
04:00	>>	04:25	04:45	03:15	03:35	>>	04:00	
06:00	>>	06:25	06:45	05:15	05:35	>>	06:00	

00:00 Larunbat lanegunetan bakarrik.

## ETXEBIZITZA

- Bi gela alokatzen dira pisu batean. Pertsona solbente eta informarekin. Sukaldea erabili eta arropa garbitzeko aukera. Kontsumoa barne, 300 euro. Irailetik aurrera. 943 26 43 10.
- Etxe bat salgai Nagusia kalean, 90 metro karratu, 3 logela, 2 komun, egongela handia, sukaldea, 9 metro karratuko ganbara, dena amueblatuta. 55.000.000pta. 625 702 539.
- Usurbilen pisu bat alokatu nahi dut. Presazkoa da. 627285904.
- Bizkarre kalean pisua salgai: 2 komun, sukaldea, sala, 3 gela, ganbara eta garajea. 48.000.000 pta. 650 938 489.
- Salgai. Kaxkoan, 3 logelako etxea trastero-arekin. Garajea aukeran. 685731792
- Bi gela edo gela bateko apartamentu baten bila nabil Usurbilen. 687 650 066 (Maria).

## SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Moto bat saltzeko, Richoo RR beltza, 49 cm3. 649 302 733 (David). Ondo zaindua, "extra" asko.
- Estrenatu gabeko Aprilia Scoter SR 50 motoa saltzen dut. 649 356 081.

## LANPOSTUAK

## Lan-eskaintzak

- Astean bi egunetan etxeko lanak egin eta tarteka umea zaintzeko pertsona baten bila nabil. Irailetik aurrera hasteko. 627278907.
- Benta tabernan lan egin nahi baduzu deitu: 685 757 962.
- Kamarero edo kamarera euskaldun bat behar da Zumeta jatetxean. 943 362713.

- Urte osoz, astebukaeratan lan egiteko zerbitzari baten bila gabilta. 943366710.

## Lan-eskaerak

- Fisikako ikaslea, uda honetan matematika eta fisikako klaseak emateko prest. 943 37 12 77 / 685 772 602 (Nerea).
- Pertsona helduak zein haurrak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 677343326
- Emakume bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, pertsona helduak zein haurrak zaintzeko. 630274906
- Emakume bat eskaintzen da umeak edo pertsona helduak zaintzeko. 676221378.
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxekolanak egiteko. Egun osoko disponibilitatea. 679742413.
- Portalak eta eskaierak garbitzeko neska bat eskaintzen da. Esperientzia horrelako lanetan. 690 784 113.
- Oporretako, ospakizunetako, edozein motatako bideoak montatzen dituen profesionala eskaintzen da. 943555835/ 617 242 660.
- Etxeko lanak egin, pertsona helduak zaindu edo jatetxe batean lan egiteko prest nago. 610 669 335.
- Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak zein pertsona helduak zaintzeko. 618434990.
- Etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zein haurrak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. 620646769.
- Arratsaldetan lan egiteko mutil bat eskaintzen da. 664 774 024.

## BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Puela inguruan, katea lepoan dutela 4 ahuntz galdu dira. Norbaitek zerbitzari bada-

- ki deitu 660614715 telefono zenbakira.
- Txakur-kumeak oparitzen ditugu, hiru hilabetekoak. 943 36 33 06.
- Pottoka salgai, kalifikatua eta subentzioa jasotzen ari dena. 626 220925.
- Egurrezko aulkiak salgai. Aritz egurrez eginikoak. 943 36 20 49.
- Salgai bixkientzako aulki bat, Red Castle markakoa, osagarri guztiekin: burbuja, zakua... 943 36 07 54 (Ana).
- Lur zatitxo bat hartuko nuke, baratz txiki bat osatzeko. 615744076.
- Bigarren eskuo trikitixa bat erosiko nuke. 656 76 52 13.
- Auñamendi enziklopediaren 80 tomo dauzkat saltzeko prezio oso onean. 635733984.
- Benelli repetidora salgai 600 euro. 645 735750.
- Mercedes Vito Mixta 112CDI bat saltzen dut. Aire egokitu, kristal tintatuak, bigarren bateria, berogailu autonomoa, aurreko eserlekuak birikariak, dena hornitua, ASR... 610 431 999.
- Faema markako lau besoko kafetera bat daukat salgai. 645708191.
- 5 urte dituen Renault Megane Coupe bat daukat salgai. 637 760 852.
- Bizirik edo jateko garbituta antxumeak salgai. Baita bertako babarrun beltza eta baserriko oilaskoak ere: 664 774 024.
- Snow egiteko tabla bat fijazioekin salgai. Tf: 679 185 102.
- Argazki zaharrak berritzen eta txukuntzen dira. Baita ezkontza, opor edota beste edozein ospakizunetako bideoak editatu ere. 617 242 660/ apore@euskalnet.net
- Bustner Fun modeloko 5 pertsonentzako karabana salgai. Tf. 629 680 214.

Zorionak etxeko txikiari!  
Uztailearen 18an bi urte bete zenuen. Muxutxo asko amatxo eta aitaixoren partez.



Zorionak Julen!  
Uztailearen 17an egin dituzu 6 urte, dagoeneko beste eskua behar kontatzeko. Zorionak aitaixo eta amatxo, lau aitona-amona, Nerea, Koldo, izeba, osaba eta etxeko guztien partez.



Zorionak MariKarmen!  
Zorionak amona MªKarmen zure urtebetetzean. Urte askotarako eta ondo ondo pasa, etxeko txikiaren partez, Julen, Nerea eta sendi guztiaren partez.



## JAIOTZAK

Maddi Zabaleta Urdanpilleta  
Ekainaren 30ean.

Ekain Susperregi Urizar  
Ekainaren 29an.

Unai Zabala Tapia  
Ekainaren 28an.

Leire Matxain Pikabea  
Ekainaren 23an.

Sara Arbeloa Tena  
Ekainaren 21ean.

**Oharra:** *Jaiotzak*, Usurbilgo Bake Epaitetik jasotako datuak. Merkatu Txikirako mezuak, zorion agurrak, hildakoen edota jaioberrien aipamenak orri honetan ikusi nahi badituzu, honako telefono zenbakira deitu bulego orduetan: 943 360 321. erredakzioa@noaua.com. Datorren alea: irailak 7.

**JOSETXO IKATZETA**  
Iturgintza  
TEL: 943 36 20 26  
687 95 12 25

ALBISTEAK EDIZIO JARRAITUAN · ALDIZKARIA ON LINE · INKESTAK · FOROAK · POSTA

**www.noaua.com**  
USURBILGO ATARIA



# EDEGUTU ZAITEZ!



Eskaintza Solariuma 35€

**Ioli Lizarralde**

ileapaindegia • Estetika Zentrua Merche Casaresen eskutik

Zubiaurrena, 5-B ☎ 943 361 971

## TXARO

- ✗ Ile zainketa
- ✗ Ile apainketa
- ✗ Zuhiko-solariuma



Eskaintza 3 - 943 371 885



## Agate

ESTETIKA ZENTROA

- Depilazioa • Laser-depilazio
- Manikura • Aurpegiko Tratamendua
- Pedikura • Solariuma • Makilaja

Nagusi 51 - Lasarte-Oria 943 370 549

## Intza

ileapaindegia

ILE TRATAMENDUAK

- ✓ Ilea erortzearen aurkako tratamendua
- ✓ Zahiaeren aurkako tratamendua

Eskaintza bereziak! Solarium-eko bonuetan

IV/ Nagusia 8 ☎ 943 363 641



## Elexpe

ileapaindegia

Betileen tintaketa eta permanentea

Estetika • Tatuaiak

Zuhirako eta Etzandako Solariuma

Muna Lirra 2. ☎ 943 370 462




Depilazioa  
Makilajea  
Manikura

Zubiaurrena 4, USURBIL • ☎ 943 361 951

mistoa





Ondo pasa  
Santiotan!!

